

DBH4_GEOGRAFIA ETA HISTORIA_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea	Txomin Fernández Brieba Onar Yeregi Gimondo Mikel Soto Nolasco	Maila	4.DBH	Ikasturtea	2021/2022
-----------	----------------------------------------------------------------------	-------	-------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	5*	6	7	8	9	10	1
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.			3	4	5		6					
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	*	6	7	8	9	10	1
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	*	6	7	8	9	10	1
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	*	6	7	8	9	10	1
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3	4	5	*	6	7	8	9	10	1
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	*	6	7	8	9	10	1

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

- MULTZOA.–XVIII. MENDEA EUROAPAN, 1789. URTEA ARTE
- MULTZOA.–IRAULTZA LIBERALEN AROA
- MULTZOA.–INDUSTRIA IRAULTZA
- MULTZOA.–XIX. MENDEKO INPERIALISMOA ETA LEHEN MUNDU GERRA
- MULTZOA.–GERRA ARTEKO GARAIA (1919-1939)
- MULTZOA.–BIGARREN MUNDU GERRAREN (1939-1945) ZERGATIAK ETA ONDORIOAK
- MULTZOA.–KAPITALISMOAREN EGONKORTZEA ETA BLOKE SOBIETARRAREN ISOLAMENDU EKONOMIKOA

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
11	XVIII. MENDEA EUROAPAN, 1789. URTEA ARTE	8	XIX. MENDEKO INPERIALISMOA ETA LEHEN MUNDU GERRA	6	KAPITALISMOAREN EGONKORTZEA ETA BLOKE SOBIETARRAREN ISOLAMENDU EKONOMIKOA
8	IRAULTZA LIBERALEN AROA	8	GERRA ARTEKO GARAIA (1919-1939)	6	MUNDUA BERRI KITAN, XX. ETA XXI. MENDEEN ARTEAN
11	INDUSTRIA IRAULTZA	8	GOGOAN PROIEKTUA: Eguneroko bizitza Frankismo garaian	6	XX. MENDE BUKAERAKO ETA XXI. MENDE HASIERAKO IRAULTZA TEKNOLOGIKOA
		11	BIGARREN MUNDU GERRAREN (1939-1945) ZERGATIAK ETA ONDORIOAK	6	IRAGANAREN, ORAINAREN ETA ETORKIZUNAREN ARTEKO HARREMANA HISTORIA

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Metodologiari dagokionez, ikasturtean zehar IK/KI programan, hau da, «Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi» txertatutako jarduera, estrategia, talde-dinamika, egitura eta teknikak landuko dira.

Gai edo prozesu baten aurkezpena eta sarrera irakasleok azalduko ditu; batzuetan ikasleriak bere ikerketak eta sintesiak egingo ditu informazio iturri ezberdinak erabiliz, eta ahozko azalpenak emango ditu. Ahozko iturriak lantzeko proiektuan, ikasleen inplikazio zuzena izango da: elkarrizketak, lan sintesiak, komunikazioa...

Gizarte departamentuak aniztasun orduak jaso ditu DBH 4.mailako errefortzua egiteko, osotara 4 ordu, bina irakasle bakoitzeko. Irakasle hauek klasera sartuko dira astean bitan errefortzu gisa. Horrela, talde guztiek bi gizarte irakasle izanen dituzte; erreferentziazkoa (astean hiru egunetan klasean izanen dena) eta errefortzuko (astean bi saioetan sartuko dena errefortzu gisa).

Irakasgaia ikasteko orientabideak:

- * Irakasleak egiten dituen azalpenak eta ematen dituen orientabideak koadernoan hartu.
- * Liburuan dagoen informazioa erabili baina ez buruz ikasteko, gaiak antolatzeke eta garatzeko baizik.
- * Eginen diren ariketa praktikoak –mapen, grafikoan, estatistiken, dokumentu idatzien, irudien... komentarioak- modu txukun eta antolatua aurkeztu behar dira.

Historia Garaikidea denez, gaurko errealitatea ezagutu eta ulertzea dugu helburua. Beraz, gure metodologian komunikabideen erabilerak garrantzia izango du: eguneroko berrien komentatu eta munduko gertaera edo prozesuren baten ikerketa lana egin.

Testuliburua: Santillana argitaletxeak duen DBH 4. mailarako Historia. Beste baliabide: Irakasleak prestatutako materiala, aurkezpen-gidak, bideoak, egunkariak, aldizkariak, web orria, internet...

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Ebaluazio bat gainditzen ez denean, irakasleak prestatutako berreskurapenerako plangintza proposatuko zaio ikasleari. Honetan sar daitezke errefortzu lanak eta berreskurapenerako azterketa, finkatu gabe dauden edukiak berreskuratzeko. Berreskurapenaren bitartez gainditutako ikasleari, gehienez ere, 5 jarriko zaio. 3. ebaluazioko berreskurapena egongo da.

AMAIERAKO EBALUAZIOKO BERRESKURAPENA: Ikasgaia gainditzeko, suspenditutako atalen azterketa bat egingo da irakasleak emandako jarraibide edo plangintzaren arabera. Horren balioa %100 da.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Azken nota hiru ebaluaziotan lortutakoaren batez bestekoa izanen da, baldin eta guztietan 5 baino gehiago atera den. Nota honek gora edo behera egin dezake ikasturtean zehar izandako eboluzioaren eta ekaineko klase egunetan izandako jarrera eta lan mailaren arabera.

Kalifikazioaren % 80 azterketek eta ikerketa lanek osatuko dute. Kalifikazioa osatzeko, azterketa eta ikerketa lan bakoitzean gutxienez 4 atera behar da. Kalifikazioaren beste % 20 ikaslearen lanak, jarrerak eta euskararen erabilerak osatuko dute.

- Euskararen erabilerak eta errespetuzko jarrera-interesak %10
- Eguneroko lana eta etxerako lana: %10.

Kalifikazio tresnak izanen dira: irakasleak egindako etengabeko behaketa, komentarioak eta azterketak.

Oharra: departamentuko erabakia ikasgai eta maila guztietarako: ikasgai bateko ebaluazioa gainditzeko gutxienez 5 behar da, nota hori baino gutxiago atera duten guztiek dagokien atala suspendituta izango dute eta beraz, berreskuratu beharko dute.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da. Ekaineko azken asteetan burututako lanak eta izandako jarrerak eragina izango dute ikasturte bukaerako notan, (*gehienez 0,5*), gora edo behera eginez.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

1.- Ikasle bakoitzak egiten duen eguneroko lan eta jarreraren balorazioa irakasleak egiten duen etengabeko behaketa.

2.- Eguneroko lana, hala klasean bertan egindakoa, nola etxerako lana, koadernoan islatuta agertu behar da. Antolatua, txukuntasunez aurkeztua, hizkuntza eta hiztegi aproposaren erabilera, eguneratua. Ariketen artean tarte huts gorde behar da zuzenketak jasotzeko, irakasleak edozein momentutan eska dezake.

3.- Azterketak, beti ere, landutako kontzeptuei eta prozedurei lotuta. Azterketa bakoitzean azalduko da atal bakoitzaren balorazioa.

4.- Taldekako lanetan eta taldeka burututako txostenetan ikasle bakoitzak izandako parte hartzearen balorazioa ere egingo da. Ahozko azalpenean antolaketa, argitasuna, hizkuntza, bat batekotasuna eta gorputz lengoia kalifikatuko dira.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ez dago aurreikusita ikasgaia honetan kanpoko ebaluazio probarik